

txintxarri



Festa baino gehiago

Haur, gazte eta heldu, ehunka herritarrek parte hartu dute Lasarte-Oria Trail elkarteak antolatutako mendi martxan, asteburuan / 8-9

TXINTXARRI

Ingurune ulerterrazera

Adimen desgaitasuna duten pertsonen errealitatea ezagutzeko gonbita egin du Atzegik / 3

Datorren asteko ostiralean aurkeztuko dute Ernai Lasarte-Oria; bi kiderekin hitz egin du Txintxarrik / 5

Errugbia bueltatu da Michelinera: Euskal Ligari ekin dio Babyauto ZRT-Beltzak taldeak asteburuan / 10



Badator GAZTE KLUBA!

Urriaren 4tik aurrera

LH3 eta LH4: Anbulatorio gaineko 2. solairuko hitzaldi aretoan
LH5 eta LH6: Oriarte eraikinean

ostiralero

17:30-19:30

2019-2020

Geltoki kalea, 4 | 943 37 14 48 - 695 78 53 92 | aisia@ttakun.eus



Diru-sortak, euskara sustatzen jarraitzeko

65.000 euro hitzartu ditu udalak Sasoeta-Zumaburu eta Sasoeta ikastetxeetako guraso elkarteekin. Diru-sorta desberdinak jasoko dituzte Burunzpek, Landaberrik eta Oriartekidek, eta, horiek, euskara sustatzeko egitasmoetara bideratuko dituzte

Txintxarri

Astelehen arratsaldean sinatu zituzten hiru hitzarmenak, udaletxean, hiru ikastetxeetako ordezkariak. Bertan bildu dira Burunzpe Guraso Elkarteko ordezkari Maria Jose Martin, Landaberri Guraso Elkarteko lehendakari Ana Agirre, eta Oriartekide Guraso Elkarteko lehendakari Arantxa Otaegi. Beraiekin izan dira Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordoki eta Jesus Zaballos alkatea ere.

Diru kopuru ezberdinak jaso dituzte hiru ikastetxeek, eta horiek, egitasmo ezerdinak egingo dituzte aurtengo ikasturtean.

Burunzpek 12.616,68 euroko diru laguntza jasoko du. Horrekin, gurasoentzako euskara eskolak eskainiko dituzte, eta jolas garaietan euskararen erabilera handitzeko programa bat ere jarriko dute martxan. Horrekin batera, Hezitzaileek Asko Egin Dezakete programarekin jarraituko dute, horrela, eskola orduz kanpoko jardueretan dabilzan begiraleak prestatuko dituzte, haurrek euskararen erabilera ahalik eta gehien optimizatu dezaten.

Irakurzaletasuna ere sustatuko dute, eta Esazu aldizkaria ere



Ikastetxeetako ordezkariak hitzarmenak eskuetan hartuta. TXINTXARRI

egingo dute. Azkenik, Gipuzkoako Bertsozale Elkartarekin batera, *Gu ere bertsoan* programarekin jarraituko dute, eta 6. mailako ikasleekin bertso eskolako talde bat osatzen ere ahaleginduko dira.

Landaberrik, berriz, 22.803,91 euroko laguntza jasoko du, eta hitzarmen horren bidez, Burunzperen antzeko egitasmoak gauzatu ditu. Gurasoentzako euskara eskolak, *Hezitzaileek Asko Egin Dezakete*

programa, euskarazko aldizkariaren irakurzaletasunaren sustatzea eta Irrintzi aldizkaria egiteko bideratuko dute diru sorta.

Hitzarmenen garrantzia

Antxordokik hitzarmenen garrantzia azpimarratu du, jasotzen dituzten programen eta diru-laguntzen kopuruarengatik eta hitzartutakoaren bidez eragile guztiek saretuta eta adostasunean lanean aritzeak suposatzen duenagatik.

Kutsadurarik gabeko hiri baten aldeko Aste Berdea

Tailerrak, dokumentala eta Lasarte-Oriako aire kutsadura puntuak ezagutzeko ibilbidea izango dira

Txintxarri

Urriaren 7tik 12ra, Aste Berdearen edizio berria antolatuta du Lasarte-Oriako udalak. *Kutsadurarik gabeko hiri baten alde* goiburua, airearen kutsaduraren arazoak ohartarazi eta herritarren jokaera arduratsuak bultzatzea du helburu. Aurtengo edizioan egunero ekintza bat egingo da.

Arratsaldeetan haur zein helduentzako tailerrak izango dira, Okendo plazan. Material birziklatuekin egindako zorro edo musika instrumentua, Monika organika panpina eta etxean landatu ahaliko diren hazi bonbak egingo dira.

Asteazkeneko azokan postua jarriko da eta pestizida naturalei buruzko tailerra egingo da.

Ostegunean, *Demain/Mañana* dokumentala eskainiko da Manuel Lekuona kultur etxean.

Larunbatean, haurrentzako murala eta material birziklatuekin egindako herri-kirolak izango dira Okendo plazan. Eguraldi ona eginaz gero, helduek energia berri tagarriekin egindako kafea dastatu ahaliko dute.

Era berean, *Ezagutu Lasarte-Oriako aire-kutsadura* ibilbidea ere izango da. Herrian dauden



Campos eta Valdivia aurkezpenean. TXINTXARRI

kutsadura mota ezberdinak ezagutu ahaliko dira.

Ekintza guztietan herritarrek *photocallean* argazkia ateratzeko aukera izango dute eta Instagramen lehiaketa ere jarri dute martxan. Airearen kutsadurarekin lotutako argitalpenak bilduko dira. *#LasarteOriakutsadurarikgabe* traola jarri beharko da irudian parte hartzeko. Atsegite gehien lortzen duen irudiak, Aterpeko dendetan gastatzeko 100 euroko erosketa txartela jasoko du.

Bestalde, Lasarte-Oriako udaleko instalakuntzetan ingurumen auditoriak egingo dira.



GIPUZKOAKO BERTSOLARI ELKARTEA

Ehun ikaslek, 'Euskararekin Match'

Asteon ekin diote ikasturte berriari udal euskaltegiko ikasleek. Euskaltegiaren atarian bildu dira, eta irakasle eta udal ordezkariak harrera egin diete bertan.

Animoak eta eskertzak izan dira nagusi kurtsoko lehen egunean, eta lan pertsonala egitera bultzatu dituzten arren, euskara modu kolektiboan erabiltzera ere animatu dituzte.



Astelehenean egin zieten harrera euskaltegiko ikasleei. TXINTXARRI

Ane Labaka, final-laurdenetan

Ane Labakak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako Elgoibarko saioa irabazi zuen, igandean. Garaipen horri esker, azaroaren 2an, larunbatez, Azkoitian jokatu den final-laurdenean izango da herritarra. Larunbat honetan Lasarte-Orian jokatu den azken final-zortzirena. Sei bertsolarik borrokatuko dute txartela eta, emaitzaren arabera, final-laurdenak osatuko dira. Final-zortzirenetako irabazleez gain, hamazazpi bertsolarik lortuko dute txapelketan aurrera egiteko txartela.

Ingurune ulerterrazagoa egiteko kanpaina abian

Aurkeztu du Atzegi elkarteak aurtengo kanpaina. Pertsona guztientzat "mundu ulergarriago baten aldeko apustua" egitera animatu nahi dituzte herritarrak, irisgarritasun kognitiboan indarra eginez. 'Bizi nire errealitate intelektuala eta mugak hautsi' da aurtengo kanpainaren leloa

Txintxarri

Gizartea desgaitasun kognitiboaren betaurrekoak janztera gonbidatu ditu Atzegi elkarteak, asteazken honetan, Okendo plazan egindako agerraldian. Adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak da, eta aste honetan aurkeztu dute aurtengo kanpaina, Lasarte-Orian.

Horren bitartez, desgaitasun kognitiboak duten pertsonen egunerokotasunean bizitzen dituzten muga eta arazo berri eman nahi diote gizarteari. Ulertzeko zailak diren mezu ugari aurkitzen ditu, edonork, kalean, egunero. Baina mezu horiek guztiak, desgaitasun kognitiboak duten pertsonentzat are ulergaitzagoak direla azpimarratu dute elkarteak. Adibideak ere jarri dituzte: jate-erretako kartak, egutegiak, garraio publikoko ordutegiak, eskuorri informatiboak eta hauteskunde programak, besteak beste. Oso ondo azaldu du Aihotz Albizu elkarteak kideak, horrelako egoeratan aurkitzen dituzten zailtasunak zeintzuk diren.

Gizartea jabetzea helburu

Gizartea zailtasun horiez jabetzea nahi du Atzegik. "Arazo horiek ulertu behar ditu jendeak, eta denon artean irtenbideak bilatu behar ditugu".



Atzegiko lagunak, asteazken arratsaldeko ekitaldian. TXINTXARRI

Horrela, ulertzeko errazak diren mezuen aldeko apustua egiteko deia luzatu dute. "Pertsona bakoitzak, bere lan edo ingurune pertsonalean aldaketa txikiak egiten baditu, ziur gaude denontzat mundu ulergarriagoa eraikiko dugula".

Horrek pertsonen autonomian eragin zuzena duela ere nabarmendu dute. "Desgaitasun kognitiboak dutenak ahalik eta autonomoenak izateko, ezinbestekoa da mundua

ondo ulertzeko aukera izatea, horrek pertsonen ororen ongizate eta bizi kalitatea bermatuko baitu". Aurtengo kanpaina datorren ostiralean, urriaren 11n, amaituko da. Baina hori baino lehen, urriaren 8an, ekitaldi nagusia egingo du Atzegik, Donostiako Antzoki Zaharrean. Bertara joateko deia luzatu diete herritarrei.

Buruntzaldean 163 familiak, 102 kolaboratzailek eta 541 atzegizalek osatzen dute elkarteak.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

Hutsa

Hutsa; bete gabea, espazioaren handitasun amaigabea izan daiteke. Espazio mugatu bat ere izaten da. Hutsuneaz ere aritzen gara sentipen abstraktuaz ari garenean; falta edo gabeziaren esanahi modura.

Hutsa bere horretan horixe da; ezereza. Guk jartzen dizkiogu ordea kokalekuak, ikusmirak, bete nahiak eta esanahiak. Hutsunea, asko maite dugun hori alden, haserretu edota kasu txarretan desagertu egiten denean izaten dugun sentimendua. Hutsa, norbait galtzeko beldurrak, gertuko norbaitek huts egiteak, baloratua ez izateak eta tarteka zure buruak berak sortzen duen sentimenduari ere hutsa deitzen diogu.

Ez da atsegina izaten bete beharreko zulo horiek estaltzea. Batzuetan, ez baitute behar estaliak izaterik, bizitzaren parte izan beharko lukete. Norberaren eta inguruko ibilbideen ikur edota bideak berak ekartzen dituenaren ikasgaiak. Beste askotan, zuloak erabiltzen ikasten dugu eta hainbatetan zuloetan barrena ibiltzeko gaitasuna garatzen dugu. Hutsunea, ez da bere horretan zuloa baina zuloak asko du hutsunetik eta beti hitz egiten dugu zulotik irteteaz, baina zergatik irten? Hutsaren mundua aukera bezala ikustea besterik ez dugu. Aukera, betebeharra edota bizimodua.

Hutsa modu positibo eta eraginkorrean begiratzean dago giltza. Hutsa salto egitea erronka berrien aurrean, ondorengo oinarriak finkatu eta hutsetik eraiki. Aukera bezala ikustea, ezerezetik beti dago hasiera bat, ez du zertan irteera izan, ez du betetzea esan nahiko agian baina bai erraieratik sortzekoa, lantzekoa, ezagutzekoa eta bereziki ikastekoa.

Zutabe hau idazten dudanean, beti izaten ditut buruan ideiak batetik bestera, kasu honetan eta hutsune hauskorren espazioan ibili naizela probestuz, bete gabeko espazio abstraktu zein fisiko hoi so egin diot. Izan ere, idazteak eta sortzeak, betetzetik haratago, badute indar berezi bat; idatzitakoa, normalki irakurria izan ohi dela eta irakurketa horrek bakoitzak dituen ustezko zulo edota hutsuneak partekatze edota hutsuneetan zoriontsu izaten laguntzeko moduko irakurketa bihurtzen direla tarteka. Bada, izan gaitezen irakurritakoaren zati, gure espazioaren partaide eta zergatik ez, hutsa bizi eta partekatze bide moduan erabil dezagun.



Katalunian gertatzen ari denarekin "kezkatuta"

Kataluniarekiko Elkartasun Taldea sortu dute bertako egoerarekin arduratuta dauden herritar batzuek. Gai horrekiko Lasarte-Orian dagoen "egonezina" adierazi nahi dute, eta mobilizazioetan parte hartzera gonbidatu. Mozioa aurkeztuko dute udalbatzarrean

Txintxarri

Katalunian independentzia erreferenduma egin zutenetik bi urte bete dira asteon. Espainiako Estatuak bortizki erantzun zuen: segurtasun indarrak bidaliz eragotzi nahi izan zuen galdeketa, boto-emaileak kolpatuz. Atxiloketa ugari ere egin zituen. Kataluniako legebiltzarreko eta gobernuko kideen aurkako epaia urriko lehen hamabostaldian espero da. Bestalde, Guardia Zibilak CDR komiteetako zenbait kide atxilotu zituen irailaren 24an, Judas operazioan.

Kataluniako egoerarekin "kezkatuta" daude hainbat herritar; Kataluniarekiko Elkartasun Taldea sortu dute. Helburu ugari dituzte: gai horrekiko Lasarte-Orian dagoen "egonezina" adierazi nahi dute; antolatuko dituzten mobilizazioetan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte herritarrik; eta urriaren 14ko ohiko udalbatzarrean aurkeztuko duten mozioaren berri eman. "Harreman estua dute hainbat lasarteoriatarrek Kataluniarekin; arduratuta daude han jazotzen ari denarekin".

Kataluniako independentzia prozesuaren inguruko zenbait zertzelada eman zituen talde horretako kide Marc Bagesek, asteazkenean: "Gizarteak eta bertako ordezkari politikoez 2012. urtean ekin zioten independentzia



Asteazken arratsaldean aurkeztu zuten Kataluniarekiko Elkartasun Taldea. TXINTXARRI

eskuratzeko bideari; jendartearen mobilizazioa baketsua eta eredu garria izan da". Kataluniako Elkartasun Taldeko kideek uste dute "gogorra" izango dela agintarien aurkako epaia, besteak beste, fiskaltzaren eta epaileen jarreragatik. "Kartzelan mantendu dituzte atxilotu guztiak orain arte".

Mozioa udalbatzarrean

Lasarte-Oriako udal korporazioak urriaren 14an egingo du hurrengo ohiko saioa, astelehenez. Mozio bat aurkeztuko dute Kataluniako Elkartasun Taldeko kideek egun horretan. Konpromiso batzuk hartzea galdegingo diote

udalbatzarrari: Kataluniako gatazkari konponbidea topatzeko bide polizialari eta judizialari uko egitea; Espainiari eskatzea bertan behera uzteko errepresio-estrategia; Kataluniarrei elkartasuna adieraztea; epaia publiko egiten denean estelada bandera jartzea; eta lasarteoriatarrei dei egitea epaia deitoratzeko antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzera.

Herritarrek ere badute zeregina: "Torredembarroko biztanleek beti hartu gaituzte beso-zabalik; erantzun egin nahi diegu, balkoietan estelada jarritz eta mobilizazioetan parte hartuz".



Atsobakar zahar-egoitzako langileak, astelehenean egin zuten elkarretaratzean. TXINTXARRI

Prekarietatearen eta soldata arrakalaren aurka borrokan

Gipuzkoako zahar-egoitzetako beharginak greban daude, berriro ere. Lasarte-Oriako langileek ere bat egin dute

Txintxarri

Irailaren 19tik urriaren 18ra, 30 eguneko greban daude murgilduta Gipuzkoako zahar-egoitzetako langileek ELAk deituta. Hori dela-eta, Lasarte-Oriako Atsobakar zahar-egoitzako kideak %70-80ko gutxieneko zerbitzuak egiten ari dira egunotan. "Urtebete daramagu, greba aldi ezberdinak egin ditugu, baina hau orain arteko luzeena da", jakitera eman du Begoñak, Atsobakar zahar-egoitzeko langile ordezkariak.

Neurri horrek ELAk zahar-egoitzen hitzarmena negoziatzera bultzatu nahi du Gipuzkoako Foru Aldundia. "Negoziaketa-mahaitik irten ginen. 2015-2016 hitzarmena izoztua dugu eta negoziaketan hori oinarri hartu beharrean, Estatuko hitzarmena hartu nahi du Aldundiak", nabarmendu du.

Lan baldintzak ez ezik, adinekoen egoitzetan dagoen

ratioa hobetzea ere eskatzen dute langileek. "Egun lanean dagoen pertsonal kopuruarekin ezin dugu kalitatezko zerbitzua eskaini; kaltetuenak aiton-amonak dira".

Egoera ikusarazten

Zahar-egoitzen egoeraren berri emateko hainbat mobilizazio aurreikusi ditu sindikatuak. Lehengo asteburuan, Donostian hiru eguneko akanpada egin zuten Saguesen eta herriz herri ere mobilizazioak egingo dituzte.

Lasarte-Oriaren txanda astelehenean izan zen. Atsobakar zahar-egoitzako langile, boluntario eta egoiliarrek Zaintzaileak zainduz, bizitzak zaindu lemapean San Pedro eliza aurrean bildu ziren. Markel Olano eta Maite Peñaren aurkako oihuak entzun ziren.

Negoziaketarik egon ezean, ELAk ez du baztertzeko grebakin jarraitzea.

Jaiek dantzan jarriko dute Sasoeta auzoa, hiru egunez

Gaur arratsaldean hasiko dira festak. Egitarau zabala antolatu du Sasoeta Sasoian elkarteak astebururako

Txintxarri

Sasoeta auzoa jai giroan murgilduko da asteburuan. Ostiraletik igandera adin guztietarako ekintzak antolatu ditu Sasoeta Sasoian elkarteak, auzoko jaiak ospatzeko. Etxeko

txikiek gozatzeko ekintzak izango dira nagusi.

Gaur, ostirala, 17:30ean botako dute txupina Andatza plazan. Musika, gastronomia eta lehiaketa ugari izango dira egitarauan. Gorputza mugitu eta forman

mantentzeko aukera ugari ere izango da: haur eta gazteentzako kirol jarduerak, zezensuzkoa edo Zumba erakustaldia.

Igande goizean patata tortilla txapelketa eta haur danborrada izango dira Jaizkibel plazan. Horiei buruzko informazio gehiago Sasoeta Sasoian elkartearen sare sozialetan aurki daiteke.

Bestalde, bi ohar helarazi ditu elkarteak: larunbateko bazkariko tiketak agortzeak dira; eta igande goizean egingo den buruarin tailerrean ez dago plazarik.



Larunbat arratsaldean harrera ona duen sardina jana egingo dute. TXINTXARRI

"Proiektua bideragarria da; ilusionatuta gaude"

MADDI IPARRAGIRRE ETA ANE GOLMAIO ERNAI LASARTE-ORIAKO KIDEAK
Datorren asteko ostiralean aurkeztuko dute Ernai Lasarte-Oria erakundea herriko hainbat gaztek, Okendo plazan, 19:00etan. "Jendea animatzen dugu parte hartzera"

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ezker Abertzalearen inguruko gazte antolakuntzak 40 urte bete zituen iaz. *Bulkada berrien garaia da!* dinamika jarri zuten martxan Ernai eta Aitzina erakundeek, besteak beste, "energia eta ilusioa" pizteko, gazte belaunaldi berrien eskutik. Olatu hori iritsi da herrira ere: hainbat gaztek Ernai Lasarte-Oria sortu dute; datorren asteko ostiralean aurkeztuko dute, urriak 11, Okendo plazan, 19:00etan.

Ernai Lasarte-Oriako kideetako bik, Maddi Iparragirrek eta Ane Golmaio, kontatu dizkiote TXINTXARRIRI egitasmo horren nondik norakoak. Datorren asteko ostiraleko aurkezpen ekitaldiari buruz ere hitz egin dute: "Esprikatuko dugu nondik gatozen eta ikasturte honetarako zein helburu ditugun; dinamikoa izango da, parte hartzeko modukoa".

Nondik dator Ernai Lasarte-Oria?

Ane Golmaio: Nire belaunaldiko hainbat gaztek -2001. urtean jaiotakoak-, Batxilergoa egiten genbiltzala, ikusi genuen ikasle mugimenduaren presentzia oso eskasa zela gure ikastetxean. Eskualdeko Ernaiko kideekin jarri ginen harremanetan; lanketa bat bideratu genuen, hezkuntzaren alorrean, zehazki.

Elkartzen hasi ginen, gero eta gehiagotan: erabaki genuen herri mailara jauzi egitea. Proiektua bideragarria dela uste dugu; ilusionatuta gaude. Maiatzean bilera bat egin genuen, zehazteko zeinek eduki zezakeen interesa egitasmoan; udako ekintzak antolatzen hasi ginen orduan, eta ikasturte honetarako bide-orria zehaztu genuen.

Zertan oinarritzen da zuen proiektua?

Maddi Iparragirre: Lasarte-Oriako gazte mugimendua ikertu dugu, eta hutsuneak ikusi: gure herriko gazteak gai dira sor daitezkeen egoerei eta arazoei erantzun puntualak emateko, baina horiek ez dira ez konstanteak, ezta kolektiboak ere. Gero eta



Irudian, abuztuaren 16an Xirimiri elkartearen egin zuten formakuntza saioa. ERNAI L-O

"IKUSI DUGU HERRIKO GAZTEEK, ORO HAR, KONTZIENTZIAZIO POLITIKO MAILA ALTUA EZ DAUKATELA"

indibidualistagoa den gizarte honen aurrean, bildu egin behar dugu gazteok, eta gure behar eta arazoei erantzun. Ezker Abertzalearen gazte mugimendua bat da Ernai; uste dugu hori dela gure ideologia politikorekin ongien bat egiten duen erakundea.

A.G.: Konturatu gara herriko gazteek, oro har, ez daukatela kontzientziazio politikoa maila altua. Hutsune bat ikusten dugu hor. Horretan eragin nahi dugu. Lehen lerroan jarri nahi dugu Lasarte-Oriako gazteria; politikoki hitz eginda, batez ere.

Gaur zortzi aurkeztuko duzue Ernai Lasarte-Oria ofizialki, baina hasi zarete lanean honezkerok.

A.G.: Egin ditugu formazio saioak udan. Abuztuaren 16an, adibidez, G7 biltzarri buruzko hitzaldi bat egin genuen Xirimiri elkartearen, sistema kapitalistaren eta inperialismoaren zapalkuntza salatze aldera. Gai orokorrak landu ditugu orain arte; gure herrian zentratuko gara aurretik.

Zer landuko duzue aurretik? Zeintzuk dira, zuen ustez, Lasarte-Oriako gazteen arazoak?

M.I.: Hiru alor nagusi landu nahi ditugu ikasturte honetan: gazteen kontzientziazio politikoa falta; etxebizitzari buruzko problematika; eta feminismoa.

A.G.: Horiek dira hiru gai premiazkoenak, gure iritziz. Dena dela, ikasturtean zehar beste alor batzuk lantzeko asmoa daukagu.

Jarri zarete Lasarte-Oriako eragileekin harremanetan? Nola erantzun dute?

A.G.: Orain arte erantzun onak jaso ditugu; onartuak sentitu gara. Adierazi diegu ez gatzela inor ordezkatzera edo zapaltzera; elkarlana sustatu nahi dugu.

M.I.: Bide batez, animatu nahi ditugu herritarrek, eta gazte jendea bereziki, aurkezpena gerturatu eta gurekin lan egitera. Ekitaldia amaitu eta gero, iragarriko ditugu bilera ireki bat egiteko data eta lekua: interesa duten guztiak gonbidatzen ditugu gurekin eseri eta euren ikuspegia partekatzera.

Gazteekin ere hitz egin duzue?

A.G.: Herriaren egoera aztertu bitartean, harremanetan jarri gara gazteak barnebiltzen dituen erakundeekin eta mugimenduekin: topatu dugun egoera ez da txarra. Belaunaldi berriak indartsu sartu dira, ilusioz; horrek gu ere indartzen gaitu.



Hainbat herritar animatu ziren bizikleta hartu eta herrian barrena ibiltzera. TXINTXARRI

Mugikortasun asteko ekintzetan parte hartu dute herritarrek

Eguraldia lagun, herrian barrena itzuli bat eman dute bizikletan; bigarren eskuko azoka ere jarri dute Okendon

Txintxarri

Lasarteoriatarrek gogotsu parte hartu dute mugikortasun asteko ekintzetan. Ez ziren geldirik egon pasa den asteburuan: eguraldi ezin hobea lagun, bizikleta hartu eta herrian barrena ibiltzera animatu ziren haurrak eta helduak. Okendo plazatik abiatu ziren, goizeko hamaiketan. Orduete inguruko osteratxoa egin zuten, giro ederrean. Bien bitartean, beste herritar batzuk Okendoko bigarren eskuko azokara joan

ziren, bertan salgai zeuden txirringak ikustera eta erostera.

Ostiralean *Ondo Ibili* egitasmoan parte hartzen duten adineko pertsonak bat egin zuten mugikortasun astearekin, eta asteroko ibilbide osasuntsua egin. Arratsaldean, familien txanda: *Geocatching* izeneko jokoan aritu ziren.

Europako ekimenarekin bat eginez antolatu du mugikortasun astea udalak, Vermican enpresarekin batera. *Ibili gurekin* leloa aukeratu dute.



TXINTXARRI

Ibon Fernandez Iradiri elkartasuna

Prentsaurrekoa egin zuen aurreko ostiralean Lasarte-Oriako Sarek, Ibon Fernandez Iradi euskal preso lasarteoriatarren egoeraren berri emateko. Esklerosi anizkoitza dauka 2013tik. Larriki gaixo dagoenez, behin eta berriro eskatu dute abokatuek, senideek eta lagunek haren zigorraren etetea. Zigor Aplikaziorako Epaitegiak berriki aztertu du haren egoera; urriaren 30ean emango du epaia, asteazkena. Fernandez Iradiren senide eta lagunek eta herriko hainbat osasun langilek argazkia atera zuten, elkartasuna adieraziz.

Festa giroak ez dauka adinik

Astebete, eta hamaika ekintza: hasi da Adinekoen Omenezko Astea. Asteburu luzea dute aurretik herritarrek: martxa neurtua, lerroko dantza erakustaldia eta bazkari herrikoia egingo dituzte, besteak beste. Urrezko ezteiak egin dituzten bikoteei aitortza egingo diete

Iñigo Gonzalez Sarobe

Sanpedroak ekain amaieran ospatzen ditu Lasarte-Oriak, baina horrek ez du esan nahi urtean zehar festa girorik ez dagoenik. Galde diezaietela jubilatuei, bestela: Adinekoen Omenezko Astea ospatzen ari dira, urtero bezala, urriko lehen eta bigarren asteetan. Festa giroak ez dauka adinik.

7 egun, hamaika ekintza. Astearte arratsaldean egin zituzten aurrenekoak: bandera jarri zuten Biyak Bat egoitza kanpoaldean. Bertara joan ziren hainbat herritar, eta udal gobernuko kide ia guztiak. Zuzeneko ekitaldietan batzuetan gertatzen diren gauzak: mikrofonoak huts egin zien egoitzako kideei, baina hori ez zen oztopo izan jai giroaren hasiera lau haizetara zabaltzeko. "Gora Adinekoen Omenezko Astea!", oihukatu zuten, ilusioz. Tokan, bolan eta igelan jokatu zuten gero jubilatuek, Isla Plazan. Iluntzean, aldiz, kartoiak eskuetan hartu eta zenbakiak ezabatzen aritu ziren, bingoan, egoitzan bertan. Sariak banatu zituzten gero.

Sasoi betean daudela erakutsiz ekin zioten asteazkenari: gimnastika erakustaldia egin zuten Maialen Chourraut kiroldegian. Hainbat hilabetetan behin eta berriro entseatutako koreografiak erakutsi zizkieten senideei eta lagunei. Kirola goizean, eta kultura arratsaldean: Virginia Imazen *Sex o no sex* clown ikuskizunaz gozatu zuten kultur etxeko auditoriora joan ziren ikus-entzuleek.

Asteburu luzea aurretik

Herrian zehar ibilalditxoa eginez ekingo diote gaurko egunari jubilatuek. *Ondo Ibili* egitasmoan parte hartzen dute askok; kamiseta berde-argiak soinean, osteratxoa egiten dute ostiralero, giro ederrean. 11:00etan aterako dira Okendo plazatik. Pasa den astean mugikortasun asteko ekintzekin bat egin zuten. Arratsaldean ere edukiko dute aukera gorputza martxan jartzeko: lerroko dantza erakustaldia egingo dute Okendo plazan, arratsaldeko bostetan. Eguna ixteko, kultur etxera joango dira, Duo Imperial bikotearen musika emanaldia ikustera. 19:00etan hasiko da.

Larunbateko aurreneko ekintza martxa neurtua izango da. 09:30ean jarri dute hitzordua, Okendon. Bizkorrenei sariak emango dizkiete udal ordezkariak. Arratsaldean, berriz, Biyak Bat koruak eskainiko du emanaldia, Brigitarren komentuan, 18:30ean. Igandean ere ez dira aspertuko adineko pertsonak: meza egingo dute San Pedro elizan, 11:00etan; gero, 12:30ean, kultur etxera joango dira, Biyak Bat korua eta Amaia Gonzalez Caballeroren dantza eskolako ikasleak ikustera; eta, 14:00etan, herri bazkaria egingo dute, Michelingo pilotalekuan. Digestioa egin ostean, arratsaldean, Azabache taldearen erritmora dantzatuko dute. Manuel Lekuonan egingo dituzten ekitaldietarako sarrerak salgai daude honezkerok: Biyak Bat egoitzan eros ditzakete herritarrek. Bestela, igandean bertan, kultur etxeko leihatilan, 11:30etik aurrera. Pertsona bakoitzak bina txartel har ditzake.

Datorren asteko asteartean, urriak 8, egingo dituzte azkeneko ekintzak. Urrezko ezteiak aurten egin dituzten bikoteei oroigarriak banatuko dizkiete. Ondoren, Abend garagardotegian bazkalduko dute.



Astearte arratsaldean jarri zuten bandera Biyak Bat egoitzan. TXINTXARRI



Tokan, igelan eta botean jokatu dute jubilatuek astean zehar, Isla plazan. TXINTXARRI



Asteazken goizean gimnastika erakustaldia egin zuten kiroldegian. TXINTXARRI



Gaur goizean egingo dute osteratxoa 'Ondo Ibili' egitasmo kideek. Mugikortasun astearekin bat egin zuten aurreko astean. TXINTXARRI




'Sex o no sex' clown ikuskizuna oholzaratu zuen Virginia Imazek asteazkenean. TXINTXARRI

PLAZAN BAZAN

ZIKULU-Saltsa

Gure sorginak ezin du asperduraren aurkako bere edabe magikoa prestatu, osagai garrantzitsuena desagertu zaiolako. Edabe magikoaren formula sekretua denez, ezin da esan zein den osagai hori, baina uste dugu gozo-gozoa dela. Nolanahi ere, nor demontre izan ote da lapurra? Hemen ageri diren adiskideen artean zeinek ostu ote dio sorginari osagaia? Ea asmatzen duzun.



Zenbait pista:

- Begiak zabal-zabalik ditu.
- Belarriak ez ditu tente.
- Ez da iluna.
- Arrautzak erruten ditu.
- Zomorro txikiak jaten ditu.
- Bere espeziean bakarra da.
- Ez da narrastia.

Labirintoa

Lagundu erroiari bere zuhaitzeraino heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartekak dira.



	F	E	G	I	N	P	E	H	E	D	G	L	I	
	O	S	E	N	S	Q	B	E	H	S	E	G	G	
T	B	O	S	E	Q	E	H	A	N	E	H	S	E	G
E	A	H	A	J	E	N	U	A	B	U	G	S	O	R
I	T	A	S	A	U	Z	B	A	E	Z	I	K	U	T
B	E	H	U	S	A	B	B	U	E	T	I	G	S	Z
I	O	A	N	A	B	L	O	R	E	N	D	N	E	
A	B	U	H	K	E	L	D	U	D	E	M	N	S	
E	B	C	U	A	H	L	O	E	T	G	I	D	B	
R	A	R	U	A	H	L	O	E	R	A	I	B	D	A
R	E	I	E	C	J	L	A	S	R	A				

Idatzi hemen esaldia.

Gustuko tokian, aldaparik ez

Festa baino askoz gehiago izan da Lasarte-Oria Trail elkarteak asteburuan egin duen mendi martxa. Antolakuntza bikaina, paisaia ederrak, hamaiketako goxoa... Ezin gehiago eskatu. Oinez, korrika, saltoka... Buruntza eta Andatza mendiez gozatu dute herritarrek

Iñigo Gonzalez Sarobe

Antolatzaileek esana zuten: proba egin nahi zuten aurten, ikusi nola erantzuten zuten jendeak, jakin gai izango ote ziren dimentsio horietako kirol ekitaldi bat antolatzeko eta egunean sor zitezkeen ustekabeei aurre egiteko. Zalantza horiek guztiak uxatu zituzten igandean Lasarte-Oria Trail elkarteak kideek. Biribila izan zen eguna: eguraldi paregabea, antolakuntza bikaina, paisaia ederrak, hamaiketako goxoa... eta jendetza mendiaz gozatzeko. Salgai jarri zituzten 300 dortsalak ostegunerako salduak zituzten. 2020an mendi lasterketa antolatu nahi dute.

Eguzkia irten aurretik iritsi ziren Okendo plazara martxa luzeko aurreneko parte hartzaileak. Ibilbidea burutu bitartean zigilatu beharreko txartelak hartu zituzten, eta beroketa ariketak egin. 08:00etan abiatu ziren. Plazaolako bidea zeharkatu zuten aurrena, eta Azkorte ermitara igo gero. TXINTXARRI beraiekin joan zen haraino, baina kazetariak bistaz galdu zituen ondoren, Buruntzara igotzen hastean; bizkorregi zihozten. Nabaritzen da mendian

kilometroak eta kilometroak egin dituztela. Estrategiaz aldatu zuen orduan: erabaki zuen martxa laburra egiten ari ziren mendizaleei itxoingo zuela, Azkorteko anoa postuan arnasa eta indarrak berreskuratu bitartean. Jo eta su egin zuten lan Anabel amak, Javi aitak, eta Endika eta Aimar semeek: familia bat parte hartzaileen zerbitzura. Batek fruta moztu, besteak iristen ari zirenei argazkiak atera, plastikozko edalontziak edariz bete, fruitu lehorrak plateran jarri, autoan musika topera... Detaile bakar batek ere ez zien ihes egin. Itzalean egiten den lana; horrelako kirol ekitaldiak arrakastatsuak izan daitezkeen ezinbestekoa.

Buruntzako 'photocall'-a

Buruntzak ia 500 metro ditu. Lehen begi kolpean, badirudi ez dela hainbesterako, baina azkeneko igoerari ekin eta zenbait harri ia eskalatzen igo behar dituzunean, ikusten duzu badaukala xarma mendi hori igotzeak, eta zailtasun puntu bat ere bai. Aldapan gora ibiltzera hain ohituta ez dauden herritarrek –eta kazetariak– majo

izerditu zuten gurutzera iristeko. Txartelak zigilatu ostean, argazkien txanda: pasa den igandeko balentria betikotzeko momentu ezin hobea. Mendizaleen zein antolatzaileen eskuetan, sakeleko kamerek gogotik egin zuten lan goiz osoan.

Jaitsiera errazagoa izan zen igoera baino. Azkortera bueltatu ziren ibilbide motzekoak –12,5 kilometro egin zituzten–, bidegurutzera iritsi eta eskuinera; eta Andatzara joan ziren luzekoak –25 kilometro–. Okendo plazan elkartu ziren guztiak, eguerdi partean. Hamaiketako goxoa eta edari freskoak zain zituzten han: txorizoa eta haragi egosia, fruta, fruitu lehorrak, gominolak, txokolatea, ura, freskagarriak... indarrak hartzeko beharrezko guztia. Oholtzara igo ziren parte hartzaileak gero, antolatzaileek prestatutako poltsak jasotzera. Zortedunenek sariak ere eraman zituzten; herriko komertzio askok babestu dute mendi martxa. Eta babesten jarrai dezatela; horrek esan nahiko du edizio gehiago egingo direla. Horrelako ekitaldiak kubritu eta gero agujetak eduki arren.



Mendi martxa hasi baino ordu erdi lehenago ilara luzeak zeuden jada. TXINTXARRI



Ibilbide luzea egin zutenak 08:00etan abiatu ziren Buruntzarantz. TXINTXARRI



Ibilbideak egin bitartean, paisaia ederrak ikusi zituzten parte hartzaileek. TXINTXARRI



Azkorteko anoa postuan berritu zituzten indarrak herritar askok. Fruta, txokolatea, ura, freskagarriak... Beharrezko guztia. TXINTXARRI



Gaztetxo askok parte hartu dute Lasarte-Oriako I. Mendi Festan. TXINTXARRI



Konpetitzeko bainoago, mendiaz goatzeko helburuz antolatu dute mendi marxa. Bete dute xedea. TXINTXARRI



Azkorteko ermitako anoa postuan indarrak hartu ostean, Buruntzara abiatu ziren parte hartzaileak. TXINTXARRI



Antolatzaileek Buruntza mendiko tontorrean zigilatu zizkieten txartelak parte hartzaileei. TXINTXARRI



Horrela ikusten da Lasarte-Oria Buruntzako tontoretik. Egun eguzkitsua izan zen igandekoa. TXINTXARRI



Ibilbide motzeko zein luzeko parte hartzaileak Okendon elkartu ziren; han egin zuten hamaiketakoa. TXINTXARRI



Lasarte-Oria Trail elkarteko kideek, mendi marxaren antolatzaileek, talde argazkia atera zuten. TXINTXARRI

Zigor-kolpe batek erabaki du norgehiagoka

Euskal Ligan konpetituko du aurten Babyauto Zarautz-Beltzak taldeak; asteburu honetan jokatu du denboraldiko aurreneko partida, Iruñeko La Unicaren aurka. Orekatua izan da partida, eta zigor-kolpe batek desorekatu du balantza: nafarrek irabazi dute, 5-8

Iñigo Gonzalez Sarobe

Errugbia bueltatu da Michelingo zelaira. Euskal Ligan ari den Babyauto Zarautz-Beltzak taldeak estreinako partida jokatu zuen larunbat arratsaldean, Iruñetik (Nafarroa) etorritako La Unica klubaren bigarren taldearen aurka. Gero eta zale gehiago ditu kirol horrek herrian, eta nabaritzen da harmailetan: gogotik animatu zituzten jokalariek. Tamalez, ez zen nahikoa izan sasoi aurreneko garaipena eskuratzeko. 5-8 galdu zuen etxeko taldeak.

Oso-oso paretua izan zen larunbateko norgehiagoka. Datu bat: 80 minutu, eta entsegu bana talde bakoitzarentzat. Zigor-kolpea zutoinetara bidaltzean finago aritu ziren nafarrak, eta horrek desorekatu zuen balantza. Garaipena zakuratu ez bazuten ere, Beltzak taldekoek badute ospakizunerako motiborik. Harrobiko lau jokalarik debutatu zuten larunbatean: Oier Arroyok,



Lehiatua izan zen larunbat arratsaldeko norgehiagoka; La Unicak irabazi zuen. TXINTXARRI

Aimar Arteagak, Ander Fernandezek eta Edu Lacallek. Errugbi eskolak fruituak ematen segitzen du. Ostiralero egiten dituzte lan saioak, Michelinen, 18:00etatik aurrera. Gero eta neska-mutil gehiago aritzen dira zelaian. Horiek bukatzen

dutenean entrenatzen dute Euskal Ligakoek. Herritar gehiago aritu ziren larunbateko partidari: Andoni Amonarriz, Gorka Aristondo, Beñat Arroyo eta David Vega, besteak beste. Asteburu honetan Arrasate errugbi taldearen aurka ariko

dira, Mojategi zelaian, igandean. Neurketa eguerdiko hamabietan hasiko da.

Desorekatuagoak izan ziren 16 eta 18 urtez azpiko Babyauto ZRT-Beltzak taldeek asteburuan jokatutako norgehiagokak, amaierako emaitzei dagokienez, behintzat. Gazteenek talde indartsu batekin neurtu zituzten indarrak, Hernani eta Atletico San Sebastian klubekin konbinatu batekin; 50-15 galdu zuten Aieten (Donostia). Zaharrenek ere konbinatu horrekin neurtu zituzten indarrak, Astin (Zarautz). Gogotik saiatu ziren, baina ezin izan zuten aurkarien erasoko jokoa geratu, eta 12-52 galdu zuten. Asteburu honetan saiaturako dira denboraldiko aurreneko garaipena poltsikoratzen. Txingudi errugbi taldearen aurka jokatuko dute biek.

Hiru partida, hiru garaipen

Sasoi betean ekin dio 2019-2020 sasoiari Ohorezko B mailako Babyauto Zarautz taldeak. Hiru neurketa jokatu ditu, eta beste hainbeste irabazi. Azkena, pasa den igandean, Campus Universitario Ourense galziarren aurka, Astin. 32-19 gailendu ziren Xabi Castañok entrenatutako jokalariek. Lasarte-Oriako bi jokalarik aritu ziren partida horretan: Adrian Apaolaza eta Alex Saleta gazteak. Beltzaken harrobikoak dira biak. Ligako laugarren jardunaldia etxean jokatuko du Babyauto Zarautzek,

larunbatean. Beste talde galziar batekin neurtuko ditu indarrak, 17:00etatik aurrera: Vigo RC etorriko da Asti zelaira. Bi partida jokatu dituzte; bat irabazi eta bestea galdu.

Michelinen bakarrik ez, herrian ere arnasten da errugbi giroa asteotan. Gure Etxea tabernan, bereziki. Hor elkartu ohi dira kirol horren zaleak partidak ikusteko, garagardo bat eskuetan dutela. Munduko Txapelketa ikusten ari dira orain. Lehen fasean dago lehiaketa hori oraindik: hogeita talde, lau multzotan banatuta. Japonian jokatzen ari dira. Urriaren 19an hasiko dira final-laurdenak, larunbatez. Finala azaroaren 2an jokatuko dute.



ASTE BURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Leintz Arizmendi Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
ERREGIONALEN GORENGOA
Ostadar SKT - Allerru Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN 1. MAILA
Ostadar SKT - Idiazabal Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.
Euskalduna SD - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Ubitarte, Andoainan.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Añorga KKE - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Rezola, Añorgan.
KADETEEN 1. MAILA
Ostadar SKT - Tolosa CF Larunbata. 10:00. Michelin kirol gunean.
INFANTILEN OHOREZKO MAILA
Beasain SD - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Igartza, Beasainen.

ARETO FUTBOLA
SENIORRAK, 1. MAILA
Eguzki Aldaz H.K. - Herrikide Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kiroldegian.
SENIOR EMAKUMEAK
Teep Samaniego - Eguzki Garoa Ostirala. 22:15. Uzturpe frontoia, Tolosan.
JUBENILAK
Laskorain KE - Eguzki 2KN Larunbata. 12:00. Usabal kiroldegian, Tolosan.
Eguzki Balerdi Harategia - Kutturru Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kiroldegian.
SASKIBALOA
SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA LAGUNARTEKOA
Ostadar SKT - Bera Bera Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.

JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Eme Oiarso SKT Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kir.
KADETE ERRENDIMENDUA
Alkideba Ointxe - Ostadar SKT Larunbata. 17:15. Musakola kir., Arrasaten.
PILOTA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 1. MAILA
Intza - Pagazpe Ostirala. 20:10. Michelingo pilotalekuan.
GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 2. MAILA
Intza - Azkoitia 1 Ostirala. 20:10. Michelingo pilotalekuan.
PROFESIONALAK
Olaizola II eta Ibai Zabala - Arteaga II eta Aretxabaleta Ostirala. 20:00. Mimetiz pilotalekua, Zallan (Bizkaia).
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Babyauto Zarautz - Vigo RC Larunbata. 17:00. Asti, Zarautzen.

EUSKAL LIGA
Kanpanzar - Babyauto Beltzak ZRT Igandea. 12:00. Mojategi zelaia, Arrasaten.
18 URTEZ AZPIKOA
Txingudi/Baztan RT - Babyauto Beltzak ZRT Larunbata. 12:15. Irunen.
16 URTEZ AZPIKOA
Txingudi/Baztan RT - Babyauto Beltzak ZRT Larunbata. 12:15. Irunen.
14 URTEZ AZPIKOA
Atletico SS - Babyauto Beltzak ZRT Larunbata. 10:30. Donostian.
BTT
VILLABONAKO II. BTT MARTXA
Herriko zenbait txirrindularik Villabonako II. BTT Martxa jokatuko dute. Bi ibilbide dituzte aukeran: motza, 28 kilometrokoa; edo, bestela, luzea, 38 kilometrokoa. Larunbata. 09:00. Villabonan.

LASTERKETAK
21. TXINGUDI KORRIKA
Herriko zenbait lasterkarik 21. Txingudi Korrika lasterketan parte hartuko dute. 10 kilometro ditu ibilbideak. Larunbata. 16:30. Hendaian.
24. LASARTE-ORIA BAI! KROSA
Urriko azken igandean, hilak 27, jokatuko da lasterketa. Datorren asteke asteartean aurkeztuko dute aurtengo edizioa. Asteartea. 19:00. Okendo plazan.
TRIATLOIA
SWIMRUN RACE
Trinko Lasarte-Oria triatloi taldeko sei kidek Swimrun Race igeriketa proba jokatuko dute. Bikoteka ariko dira parte hartzaileak: Naroa Salsamendi eta Iñigo Arteaga; Enaitz Ibarburu eta Iñigo Ibarburu; eta Mikel Izagirre eta Asier Gorostegi. Igandea. Ullibarri-Ganboa urtegian.



Ostadar SKTko senior taldeak Gasteizko Ekhitarrak taldea garaitu zuen Maialen Chourraut kiroldegian. TXINTXARRI

Txanponaren bi aldeak ligako partidetan

Errendimenduko kadete taldeak hiru partidetatik hiru irabazi ditu. Ligako buruan da BKL Esparrurekin berdinduta. Bestalde, Gasteizko Ekhitarrak taldearekin lagun arteko eguna izan dute Ostadar SKTko hiru taldek larunbatean, Maialen Chourraut kiroldegian

Txintxarri

Ostadar Saskibaloitako taldeak buru-belarri ari dira denboraldia prestatzen, junior eta kadete errendimenduko taldeak izan ezik. Biek hirugarren jardunaldia jokatu dute eta emaitza ezberdinak izan zituzten Bera Bera elkarte taldeen aurka.

Kadete errendimenduko taldeak 52-48 irabazi zuen Maialen Chourraut kiroldegian. Lehen laurdenean bi punturengatik galtzen joan arren, bigarren laurdenean urdin-beltzek buelta eman zioten partidari eta tarte txikia egin zuten: 27-21.

Errenta mantentzeko lan egin behar izan zuen Reinoren taldeak, gainerako bi laurdenetan Bera Bera garaipenaren bila lanean

ari baitzen. Amaieran, puntuak etxean geratu ziren.

Emaitza horri esker, hirutik hiru partida irabazi ditu kadete taldeak eta sailkapeneko buruan da, BKL Esparru taldearekin berdinduta.

Txanponaren beste aldean junior errendimendu taldeak ikusi zuten; Bera Bera Albistur taldearen aurka 39-33 galdu zuten.

Lehen bi laurdenak parekatuak izan ziren. Lehenengoan Ostadar aurreratu zen, baina Bera Berak gogor borrokatu zuen bigarren partidari buelta emateko.

Hirugarren laurdenean errenta handitu zuen Donostiako taldeak hamarrekotako tarte ezarri. Endika Marrahik zuzentzen duen taldea azken laurdenean

borrokatu zen, baina ezin izan zuen Bera Beraren aurka.

Lagunarteko partidak

Bestalde, Ostadar SKTko hiru taldek Gasteizko Ekhitarrak taldearen aurka jokatu zuten. Giro ederrean, 1. eta 3. mailako senior taldeek eta junior partaidetza mailako lagunarteko partidak izan ziren lehen larunbatean Maialen Chourraut kiroldegian.

Senior mailako partidetan, Ostadar izan zen garaile. 1. mailako senior taldeak 56-30 irabazi zuen eta 3. mailakoak 56-39. Junior partaidetza taldeak 25-36 galdu zuten.

Hiru taldeek urriko hirugarren asteburuan emango diote hasiera denboraldiari.

Ostadar Inklusioa taldeko kideak lanean hasi dira

Urrezko Kriskitina sarirako hautagai da taldea. Urriaren 17an amaitzen da bozka emateko epea

Txintxarri

Ostadar Inklusioa taldeko kideak denboraldi berria prestatzen ari dira. Anoetako Miniestadioan edo Maialen Chourraut kiroldegian atal guztiak lanean hasi dira.

Saskibaloitako taldeko kideak, esate baterako, Gasteizen izan ziren, 24. Zuzenak torneoan parte hartzen. Victor Val jokalariairean oroitu zuten edizio honetan.

Urrezko Kriskitina

Bestalde, Ostadar Inklusio taldea Urrezko Kriskitina saria

eskuratzeko hautagaietako bat da. ONCE elkarteak ematen duen sari honetan elkarte, erakunde edo enpresek egiten duten lana saritzen da. Ostadar Inklusio taldea Basquelands Way eta Mindara elkarteekin lehiatuko da.

Bozka gehien lortzen duenak urriaren 19an jasoko du saria XVIII Gizarte bateratzaile baten aldeko Kriskitin Lasterketan.

Bozka internet bidez egin behar da ONCEko orrialdean. Urriaren 17ko eguerdira arte dago bozka emateko aukera.



OSTADAR IPAR MARTXA

Valderejo Parkea ezagutzen

Ikasturteari hasiera emateko Ostadar Ipar Martxa taldeko kideek egun osoko irteera egin dute. Larunbatean, eguraldia eta umore ona lagun, Valderejo Parkean barrena ibili ziren. Purrion ibaiaren haizpitarteko bidea ezagutu zuten, esate baterako. Arratsaldean, berriz, Añanako gatzagak bisitatu eta oinak uretan lasaitu zituzten.

txintxarri

Adi! Bertan zure zerbitzuak iragartzeko toki aproposa. Egin ezazu erreserba!

TXINTXARRI PUBLIZITATEA: publizitatea@ttakun.eus
Tel: 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

2 zenbaki berezi kaleratuko ditugu



**urriaren 25ean
eta urriaren 31n**

Kiroldegi berriko proposamenak ikusgai


Urriaren 7tik 20ra arte kiroldegiko kafetegian erakutsiko dira epaimahaiak aukeratutako bost proiektuak. Herritarren iritzia jasotzeko galdeketa osatu du lehiaketako epaimahaiak. Erabiltzaile guztien behar eta eskaerak kontuan izatea nahi du Lasarte-Oriako Udalak

Txintxarri

Kiroldegi berriko proiektuaren hautaketa prozesua aurrera doa. Uda baino lehen, lehiaketara aurkeztutako hamalau proiektuen artetik, bost aukeratu zituen udal-arkitektoek, EHUko arkitektura eskolako zuzendari Juan Jose Arrizabalagak eta Jesus Zaballos alkateak osatutako epaimahaiak. Orain azken aukeraketa egiten laguntzeko herritarren iritzia jaso nahi du udalak, parte-hartze prozesu baten bitartez; prozeduraren pausoak azaldu ditu.

Lehenik, erakusketa egingo da. Kiroldegi berriko bost proposamenak ikusgai egongo dira astelehenetik aurrera kiroldegiko kafetegian. Horretarako, lehiakide bakoitzari hiru paneletan proiektuaren ezaugarriak zehazteko eskatu dio udalak.

Erabiltzaile eta herritarrek horiek aztertu eta epaimahaiak osatutako galdeketa bati erantzun beharko diote. Sei galdera izango dira: ingurumen eta aurreko kirol instalakuntzekin integrazioa; sarbideak eta erabiltzaileen zein ikusleen zirkulazioa; eremu hezeak; eremu lehorak; herritarren kirol-



Kiroldegi berriko proposamenen iritzia jasotzeko prozesua aurkeztu du udalak. TXINTXARRI

premiak; eta proiektuen lehentasun-ordena.

Galdera bakoitzeko proposamen onena aukeratu beharko dute herritarrek, 5etik 1era baloratuz: 5a balorazio hobereena izanik eta 1a okerreana. Iradokizunak egiteko aukera ere izango dute.

Galdeketa orriak erakusketan bertan egongo dira eskura eta kiroldegiko harreraren izango den postontzian jasoko dira, urriaren 20ra arte, igandea.

Prozesu honetan parte hartzeko bi baldintza bete beharko dira: Lasarte-Orian erroldatua egotea eta 16 urte baino gehiago edukitzea.

Erakusketa amaitzean, orri guztiak idazkaritzara eramango dira, herritarren datuak gainbegiratzeko. Ostean, galdera bakoitzeko media bat egin eta epaimahaiari bidaliko zaizkio emaitzak. Azken erabakia hartzerako orduan, guztien behar eta nahiak kontuan izatea nahi du udalak. Proiektuaren esleipena urte amaiera baino lehen egitea espero du.

Herritar guztiei parte hartzeko gonbita egin eta erakusketarekin errespetuz jokatzeko ere eskatu zuten udal ordezkariak atzo goizeko agerraldian.



Maialen Chourraut Munduko Txapelketako finalean lehian. RFEP.ES

Munduko Txapelketa gazi-goza Maialen Chourrautentzat

Tokioko Joko Olinpikoetarako sailkapena eskuratu arren, ezin izan zen podiumeko postuetan egon

Txintxarri

Maialen Chourraut piraguistak balentria handia egin zuen larunbatean La Seu d'Urgellen jokaturako Munduko txapelketan. Finalera sailkatu eta laugarrenez Joko Olinpiko batzuetan parte hartuko du herritarrek.

Pozik agertu da Chourraut sailkapenarekin, baina oraindik ez du ospatzeko gogorik, egun gogorra izan baitzen larunbatekoa. "Udara guztia lanean egon gara eta helburua lortu dugu. Baina zapora gazi-goza dut Munduko txapelketako finalean egindako lana dela eta". Final-erdia "justu" sailkatu zen eta finalean akats batek azken postura eraman zuen, hamargarrenera.

Final-erdian jaitsiera garbia egin zuen herritarrek, baina denboraz motel ibili zen, 101.11. Hamargarren postuarekin igaro

zen finalera. "Final-erdia justu iritsi naiz. Azken parte-hartzaileak nik baino jaitsiera okerragoa egin du eta horrek salbatu nau", adierazi zuen herriko palistak.

"Gogorra". Horrela definitu zuen Chourrautek finaleko jaitsiera. "Hasierako zatian ondo joan naiz, baina gerora denbora galdu dut. Ate batera ez naiz ongi iritsi eta zigorra ezarri didate." Horrek podiumetik urrundu zuen herritarra.

Orain Tokioko Joko Olinpikoetara begira jarriko da lanean lasarteoriatarra. "Txapelketa honetan ikusi den bezala, arerioak oso azkarrak dira eta edonork irabazi dezake. Final estua izan da. Horregatik lanean jarriko gara, asko baitaukat hobetzeko", zehaztu zuen Chourrautek.

Buruntzaldea IKTKo kideek, sari ugari Igeriketa Galan

2018-2019 denboraldiko onenen artean izan dira igeriketa taldeko zortzi igerilari

Txintxarri

Ederki hasi dute denboraldia Buruntzaldea IKTKo igerilariak. Irailaren 21ean, Gipuzkoako Igeriketa federazioak Igeriketa Gala egin zuen, Azkoitian. 2018-2019 denboraldiko igerilekuko ligetan eta itsas zeharkaldien ligan lehen hiru postuetan

sailkatutako igerilariak sariak banatu zizkieten eta Buruntzaldea IKTKo zortzi kide igo ziren Baztartxo Antzokiko oholtzara saria jasotzera.

Itsas zeharkaldien ligan, Julen Azpirozek E mailako garaikurra jaso zuen; Laura Igea, berriz, B mailako txapeldun izan zen. D

mailan, Nerea Santosek zilarrezko postua lortu zuen.

Neguko Ligan, infantil mailan, Aintzane Sarobe txapeldunorde izan zen eta junior/absolutu mailan, Leire Martin txapeldunorde eta Ainhoa Martin hirugarren izan ziren.

Igeriketa Egokituari dagokionez, Nahia Zudairek ligako garaikurra eta Munduko Txapelketan egindako lanaren aitortza jaso zuen.

Udako denboraldian, 2005eko nesken artean, Nora Imazek sari nagusia jaso zuen eta Leire Martinek berriz, junior/absolutu mailako bigarren saria.



Igeriketa Galan saria jaso zuten Buruntzaldea IKTKo kideak. BURUNTZALDEA IKT


KOMIKIA




ZORION AGURRAK



Kiko
Zorionak Kiko!! Mende erdia bete duzu baina... "como un chavalín" zaude.



Eneko
Garrantzitsuena ez da bizitzan zenbat urte pilotzen dituzun baizik eta urte horietan zenbat bizitza pilotzen den. Zorionak Eneko!



Ane
Zorionak printzesa zure h a m a r g a r r e n urtebetetzean!! Segi horrela. Asko maite zaitugu bihotza!! Zure familia guztiaren partetik.



Aiora
Zorionak artista, amesten duzun hori lortuko duzu!! Disfrutatu eguna!

HILDAKOAK

Mª Angeles Aragon Martin. Irailaren 30ean.
Isabel Valea Mata. Irailaren 30ean.
Venancio Martin Monge. Irailaren 28an.

OHARRAK

U16 Manifestazio

Espainia osoko Pentsiodun elkarteak urriaren 16an, Madrilen bilduko dira pentsio publikoen alde. Lasarte-Oriako Pentsiodunen eta Erretiratuen Koordinakundeko kideek bat egingo dute eta horretarako autobusa antolatuko dute. Astelehenean, 11:30etik 12:00etara Okendo plazan egingo duten mobilizazioan eman ahalko da izena.

Katekesia

2019-2020 ikasturteko katekesi saioak urrian hasiko dira. Lehen Hezkuntzako lehen mailan dauden gaztetxoek izena eman behar dute. Izan ere, jaunartzea egin ahal izateko hiru urtez katekesia jaso behar dute gaztetxoek.

Inskripzioak San Pedro elizan eta Arantzazuko Amaren parrokiaren egingo dira. San Pedro elizan urriaren 5ean: LH1, 10:30ean; LH2 11:30ean eta LH3 12:30ean. Arantzazuko Amaren parrokiaren hiru egunez: LH1, urriaren 8an, 18:00etan; LH2, urriaren 7a, 18:00etan eta LH3, urriaren 9a, 18:00etan.

Euskal Jaia

Urriaren 19an Ttakun Kultur Elkartearen Euskal Jaia ospatuko da. Egun guztiko egitaraua prestatu dute, eta bazkarira joateko txartelak, gaurtik aurrera erosi ahal izango dira elkartearen eta Jalgi Kafe Antzokian. Helduen tiketak 10 euroko kostua du, eta gazteenak, berriz, 6 eurokoa. Urriaren 15era arte egongo dira salgai.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 04	ORUE	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 05	ACHA-ORBEA	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 06	ACHA-ORBEA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 07	DE MIGUEL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Asteartea, 08	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 09	GIL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 10	ACHA-ORBEA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41


Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 04




Larunbata, 05




Igandea, 06




Astelehena, 07



Asteartea, 08



Asteazkena, 09



GUTUNAK

Erraustegiaren kutsaduren kontrol independentea ordaintzeko diru-bilketa

PELLO ZUBIRIA KAMINO. ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA

Erraustegiaren Aurkako Mugimendua diru bilketa abiatu du Zubietako erraustegiak -pizten baldin badute- zabalduko duen kutsaduraren kontrol independentea finantzatzeko. Hemendik herritarrok animatu nahi zaituztegu ekimen hau lagundu eta bultzatzera.

Ikerketa zientifikoa honen helburua da urtero kutsadura frogak egitea, eta, helburu horrekin, duela egun gutxi batzuk ToxicWatch fundazio holandarrak eta Eusko Jaurlaritzak akreditatutako enpresa batek laginak hartu zituzten, bai erraustegiaren inguruko hainbat herritan -Zubietan, Usurbil, Lasarte-Oria, Andoain, Añorga, Hernani eta Urnieta- eta bai urrunagoko beste batean, Goierriko Zaldibian. Puntu horietan oilategietako arrautza, goroldio, lur eta landareen laginak hartu

dituzte. Oso inportantea da ezagutzea puntu horietan egoera zein den Zubietako tximinia zaborrak erretzen hasi aurretik, ondorengo urteetan berritua frogatu berdinak egin eta gauzak nola doazen berme zientifikoz frogatzeko.

Nazioarteko ikerlariak Euskal Herrira ekarri, laginak hartu eta beren herrialdeetan azterketa analitikoak egiteak diru kostu bat dauka. Horregatik, Erraustetaren Aurkako Mugimendua osatzen dugun talde eta herritarrok erabaki dugu ikerketa babestea eta finantzaketa lortzen laguntzea.

Aurrera doa 13.000 euro biltzeko kanpaina eta dei bat egiten dizuegu herritarroi, bakoitzak ahal eta nahi duen neurrian parte har dezan. Dirua eman daiteke bai Verkami crowdfunding plataformatik, baita bankuko ES45 2095 5069 06 1064132086 (Zubietan Lantzen) kontu korrante honetan sartuz edo baita ere EAMeko kideren bati eskura emanaz.

Ez etsi, herritarrok: eutsi. Erraustetarik ez, ez Zubietan eta ez inon!

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAINITZA

Pertsona baten bila gabiltza, ebeko lanak eta afaria prestatzeko, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara. 688 667 982.

ESKARIA

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Interna edo asteburuetan. 603 296 104.

Pertsona eskaintzen da haurrak zaindu edo pertsona adinduekin egoteko. 638 550 178.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta ebeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

SALEROSKETA

EROSI

Land Rover Defenderra erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

HEZKUNTZA

Klase partikularrak emango nituzke. 677 141 001.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta Beñat Lizaso.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz
Ezeiza, Iñigo Garcia eta Jose
Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 4

LASARTE-ORIA Adinduen omenezko astea

Pertsona adinduen omenezko asteko ekintzak:

- 11:00etan, *Ono ibili* ibilaldia.
 - 12:00etan, luntxa, Biyak Bat egoitza.
 - 17:00etan, lerroko dantzen erakustaldia, Okendo plaza.
 - 19:00etan, Duo Imperial taldearen kontzertua, Manuel Lekuona kultur etxea.
- Lasarte-Oria, egun osoa.

LASARTE-ORIA Jaiak

Sasoeta auzoko Jaiei hasiera emango diete:

- 17:30etan, txupinazoa, Andatza plaza.
 - 18:00etan, txaranga, Andatza plaza eta inguruak.
 - 18:00etan, kirol jarduera, Uzturre plaza.
 - 19:00etan, Ostirintxo, Jaizkibel plaza.
 - 19:30ean, txiki diskoa, Jaizkibel plaza.
 - 22:00etan, zezensuzkoa, Andatza plaza.
 - 22:30ean, DJa, 80. hamarkadako musika saioa, Jaizkibel plaza.
- Sasoeta auzoa, 17:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Zorione Mendez artistaren *Marrak* erakusketa. Urriko asteburuetan bakarrik izango da ikusgai. Ostiraletan 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan eta igandeetan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Antonio Mercero Aretoa.

LASARTE-ORIA Jaiak

Zabaleta auzoko kideek Udazken festa antolatu dute. Musikaz gozatu bitartean, sardinak eta sagardoa dastatu ahalgo dira.

Antonio Blas plaza, 20:30ean.

LARUNBATA 5

LASARTE-ORIA Adinduen omenezko astea

Pertsona adinduen omenezko asteko ekintzak:

- 9:30ean, ibilaldi neurtua, Okendo plaza.
- 18:30ean, Biyak Bat elkarteko eta Eibarko Unzaga abesbatzen emanaldia, Ama Brigitarren komentua.



LASARTE-ORIA Zinema eta opera digitala. Manuel Lekuona kultur etxeak zinema eta emanaldi digitalen ikasturteari hasiera emango dio, igande honetan. Etxeko txikiek *Elkano. Lehen Mundu bira* filma ikusi ahalgo dute; helduenek, berriz, *A quien hierro mata*. Asteazkenean, operaren txanda izango da. Rossiniren *El Barbero de Sevilla* aski ezaguna eskainiko da. Veronako Arenan grabatutako ikuskizunean Leo Nucci eta Ferruccio Furlanetto abeslari handiak batu ditu Hugo de Anak zuzendutako produkzioak.

Manuel Lekuona kultur etxea. igandea eta asteazkena.

20:30ean, afaria, Abend jatetxea.
Lasarte-Oria, egun osoa.

LASARTE-ORIA Jaiak

Sasoeta auzoko Jaiak:

- 11:00etan, kirol jarduera, Uzturre plaza.
 - 11:30ean, puzgarriak, Andatza plaza.
 - 13:00etan, buruhandiak, Jaizkibel plaza.
 - 14:30ean, paella jana, Jaizkibel plaza.
 - 16:00etan, mus txapelketa.
 - 16:30ean, altxorra Quiz jokoa, Jaizkibel plaza.
 - 17:00etan, Zumba erakustaldia, Jaizkibel plaza.
 - 18:30ean, danborrada, Andatza plaza.
 - 19:30ean, sardina jana, Jaizkibel plaza.
 - 22:00etan, zezensuzkoa, Andatza plaza.
 - 22:30ean, DJ saioa dantzaldia, Jaizkibel plaza.
- Sasoeta auzoa, egun osoa.

LASARTE-ORIA Bertsolaritza

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken final-zortzirena izango da Lasarte-Orian. Sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean. Aurrez agortzen ez badira, txarteldegian ere eskuratu ahal izango dira, 16:00etatik aurrera.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

IGANDEA 6

LASARTE-ORIA Adinduen omenezko astea

Pertsona adinduen omenezko asteko ekintzak:

- 11:00etan, meza, San Pedro eliza.
 - 11:45ean, kalejira trikitixak lagunduta Manuel Lekuona kultur etxera
 - 12:30ean, ekitaldia, Manuel Lekuona kultur etxea. Biyak Bat elkarteko abesbatza eta Amaia Gonzalez Caballero izango dira oholtzan.
 - 14:00etan, bazkaria, Michelin kirol guneko pilotalekua.
 - 16:30ean, dantzaldia Azabache taldearekin, Michelin kirol guneko pilotalekua.
- Lasarte-Oria, egun osoa.

LASARTE-ORIA Jaiak

Sasoeta auzoko Jaietako amaiera emango zaie:

- 11:00etan, Buruarinen tailerra, Gaztelekua. Plazak agortu dira.
- 11:00etan, haur tailerrak, Jaizkibel plaza.
- 12:30ean, patata tortilla lehiaketa, Jaizkibel plaza.
- 13:00etan, haur danborrada, Jaizkibel plaza.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Elkano. Lehen mundu bira.
Igandea: 17:00.
Quien a hierro mata
Igandea: 19:30.

LABURPENA

Ezezagunera bidia

Elkano. Lehen Mundu Bira.

Zuzendaria: Angel Alonso. **Gidoilariak:** José Antonio Vitoria, Garbiñe Losada. **Herr:** Euskal Herria (2019). **Argazkia eta muntaketa:** Angel Alonso. **Musika:** Joseba Beristain. **Iraupena:** 90 minutu.



Inoiz izan den abenturarik zirraragarriena, lehen mundu bira. Sevillatik bost ontzi atera ziren Magallanesek gidatuta. Ibilbide ezezaguna egin behar zuten. Ekaitzak, gosea, tribuak... Hiru urte beranduago soilik batek lortu zuen iristea Juan Sebastian Elkanoren gidaritzapean. Planeta biribila dela erakutsi zuen bidia gozatuko dute txikiek.

13:30ean, sari banaketa, Jaizkibel plaza.

Sasoeta auzoa, 11:00etatik 14:00etara.

ASTELEHENA 7

LASARTE-ORIA Aste Berdea

Hazien bomba tailerra egingo da, Aste Berdearen barruan.

Okendo plaza, 17:00etatik 19:00etara.

ASTEARTEA 8

LASARTE-ORIA Adinduen omenezko astea

Pertsona adinduen omenezko astearen barruan, Urrezko ezteiak egiten dituzten bikoteen eguna antolatu du Biyak Bat elkarteak:

- 10:40ean, kalejira trikitixak lagunduta Ama Brigitarren komentura.
 - 11:00etan, meza Biyak Bat elkarteko abesbatzak lagundua, Ama Brigitarren komentua.
 - 12:00etan, luntxa, Biyak Bat egoitza.
 - 12:30ean, opari banaketa, Biyak Bat egoitza.
 - 14:30ean, bazkaria, Abend jatetxea.
- Ostean, dantza.
- Lasarte-Oria, egun osoa.

ASARTE-ORIA Aste Berdea

Tetrabrikekin egindako zorroen tailerra egingo da, Aste Berdearen barruan.

Okendo plaza, 17:00etatik 19:00etara.

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Karmele Gurrutxaga psikologoak *Emozioak gorputzean islatzen dira* hitzaldia eskainiko du. Nagusilan elkarteak antolatuta.

Manuel Lekuona, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Informazio saioa

Zabor kudeaketa sistemari buruzko informazio saioa eta tailerra jasoko dute erdialdeko herritarrek.

Antonio Mercero Aretoa, 18:30ean.

ASTEAZKENA 9

LASARTE-ORIA Aste Berdea

Pestizida naturalen tailerra eta informazio mahaia izango dira, Aste Berdearen barruan.

Azoka, 10:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Aste Berdea

Monika Organika tailerra egingo da, Aste Berdearen barruan.

Okendo plaza, 17:00etatik 19:00etara.

LASARTE-ORIA Informazio saioa

Zabor kudeaketa sistemari buruzko informazio saioa eta tailerra jasoko dute Sasoeta auzoko herritarrek.

Gaztelekua, 18:30ean.

LASARTE-ORIA Opera digitala

Opera digitaleko denboraldiari hasiera emateko, Veronako Arenan grabatutako *El Barbero de Sevilla* opera ezagunaz gozatuko dute zaleek. Jatorrizko hizkuntzan gazteleniazko azpitoluekin. Sarrera, 7,5 euro aurrez erosita; egunean, 9 euro.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

OSTEGUNA 10

LASARTE-ORIA Aste Berdea

Demain/Mañana dokumentala eskainiko da, Aste Berdearen barruan.

Manuel Lekuona, 17:00etatik 19:00etara.

2mó/99€

graduatu, erreflexuen/
aurkako lenteekin

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS

lehen a zerbitzu optikoetan

www.multiopicasgipuzkoa.com



Zozketa!

Ttakuneko bazkide zara?

EUSKAL JAIETAKO bazkarirako
BI BAZKARI TXARTEL BIKOITZ
(2 heldu 2 haur) zozketatuko ditugu

Eman izena urriaren 9a baino lehen: harpidetza@ttakun.eus
helbidean, 943 37 14 48 zenbakian eta 646. 82 44 66 (whatsapp)

EUSKAL JAI A'19

URRIAK 19, LASARTE-ORIA




@ttakunKE f t Bazkide zara informazioa

Izena eman Lasarte-Orian!

2019-2020 ikasturtea



Akademiak



Sukaldaritza



Euskaltegia



Yoga / Pilates

zitek

zientzi eskola

HIZKUNTZAK:

- ingelesa
- frantsesa
- matematika
- fisika
- kimika
- gaztelera
- euskara

Tel: 943363106

Goikale 12, behea
www.zitek-akademia.com
info@zitek-akademia.com

SUKALDARITZA IKASTAROA

BASQUE CULINARY CENTERREKO IKASLEEK GIDATUA
TTAKUNENEA ELKARTEAN
(16 URTEK GORAKOAK)

Sukaldaritza modernoa,
tradizionala, internazionala,
ekologikoa...

Asteazkenetan 18.30etik-20:00etara
Urriak 16tik azaroak 27ra, biak barne

Izen emateko:
Ttakun Elkartearen (Geltoki, 4)
943 37 14 48 edo 695 78 53 89
kultura@ttakun.eus



AZKEN PLAZAK

70 € ez-bazkideak / 65€ bazkideak.

eman izena!

aek

euskara praktikoa

- Euskarako klaseak:
- A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.
- "On-line" aukera.

Muntteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria
• 607 62 52 33 • lasarte@aek.eus
www.muntteri.blogspot.com

YOGA ETA PILATES

"Goizean eta eguerdian"

Geltoki kalea, 11- 5 behea.
(Okendo plaza)
LASARTE-ORIA
943-544 119
688 665 802



belar-denda

URRIKO JARDUERAK:

- Urriak 14: Eskuaren erreflexologia tailerra
- Urriak 19: Bidaiatu zure esentziara (urritik-otsailera)
- Urriak 24: Doako hitzaldia "Erregistro Akashikoak"